

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### OLABEZARKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

#### Mugaketa espedientea

Olabezarko Administrazio Batzarrak, 2019ko urtarrilaren 16ko bilkuran, hau erabaki du:

Lehenengoa. Uriarteko bide publikoa eta Aiarako 4 poligonoko 577 partzela mugatzeko administrazio espedientea abiaraztea, zehazki Aiarako 4 poligonoko 576, 586, 587 eta 592 partzelekin muga egiten duen zatian.

Bigarrena. Lur neurketa lanak hasteko 2019ko apirilaren 2a finkatzea, bidearen tarte horretan.

Neurketa lan horiek Olabezarko Administrazio Batzarreko teknikariek zuzenduko dituzte, eta batzarburua ere bertan egongo da. Lanak goizeko 10:00etan hasiko da.

Hirugarrena. Erabaki honen berri ematea lursail publikoaren mugakide diren jabeei, eta espedientea jendaurrean jartzea, neurketa lanak hasi baino 30 egun baliodun lehenago argitara emanaz ALHAOn eta Olabezarko Kontzejuaren iragarki taulan.

Espedientea jendaurrean dagoen bitartean, interesdunek Aiarako Udalaren bulegoetan izango dute eskuragarri.

Laugarrena. Interesa duen edonori jakinaraztea bere eskubideak frogatu eta aldezteko egokitzat jotzen dituen alegazioak eta agiriak aurkez ditzakeela Aiarako udal bulegoetan, neurketa lanak hasi baino hogeit egun lehenagora arteko epean. Epe hori igaro eta gero, ez da onartuko ez agiririk ez alegaziorik.

Administrazio Batzarrak dagokiona erabakiko du agirien eta gainerako frogen gainean, horiek aurkezteko epea amaitu eta mugaketa hasteko finkatu den egunaren bezpera arte, eta une egokian jakinaraziko zaie interesdunei.

Bosgarrena. Ezarritako egunean, aipatutako tokira joango dira zerbitzu teknikoak, zeinek adierazitako tarteetan bide eta partzela publikoaren mugak zehaztasunez ezarri eta planoak egingo baitute, batzarburuarekin batera. Ondoren, akta egingo dute, Ondasunen Arautegiak 64. artikuluan adierazitako erreferentzia guztiak jasoko dituen, eta bildutako guztiak sinatuko dute.

Gero, kontzejuaren osoko bilkuran mugaketa ebazteko erabakia onartuko da, zeina bete-arazlea izango baita. Horren aurka egin daiteke administrazioarekiko auzien bidean.

Mugaketa onartzeko erabakia irmo egiten denean, mugarritze lanak hasiko dira, interesdunak tartean direla.

Seigarrena. Erabaki honen aurka ezin izango da errekurtsorik jarri, izapide hutsa baino ez delako; edonola ere, egokitzat jotzen diren ekintzak gauzatu ahal izango dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Olabezar, 2019ko otsailaren 18a

*Lehendakaria*

*EUSEBIO DANIEL MEABE LILI*